

Ugaldea (-a) etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Uhélde



43° 11' 11"

2° 34' 14"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Ugaldea... de la cofradía de San Lorenzo de la anteiglesia de Berriz,.... se compone de piso llano con zaguán cocina y cuadra y de un aditamento horno por el lado Este, de piso principal con un cuarto sala y pajar, y encima camarote, y mide su planta solar doscientos diez y nueve metros cuadrados...”
DJE, 6/ 108. or. (1892)

Oka erreka (**Ikus Oka erreka**) inguruan kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipamenak ere XVIII. mendean aurkitzen ditugu, hots, *Ugaldea* (1702) BAHF, A1961/32. or.). Bizkaiko su-erroldean ere nabariak dira *Ugaldea* (1704 eta 1796). Inguruan dagoen *Ugalderrota* (**Ikus Ugalderrota**) baserriarekin batera agertuko da dokumentu gehienetan, eta *Ugaldea* moduan jasotzen dira biak batera. Adibidez, 1859ko izendegian *Ugaldéas* (1859, BUA, Nmcr) agertzen dira. Bestela, ez da aldaketarik nabari izen honetan, dokumentu guztietan *Ugaldea* forma izanik erabiliena. Auzotarren artean, *Uhélde* da ahozko formarik erabiliena.

Bizitza biko baserria da, eta fatxadan ere igartzen da hori. Ezkerreko alde XX. mendeko berrikuntza batean erabat aldatu bazuten ere, eskumako aldeari erreparatuta ondo baino hobeto ikus daiteke nolakoa izango zen jatorrian. XVII. mendean hedatuta egon zen tankerakoa zen, hau da, hiru gorputzez osatua. Aldamenetakoak harrizkoak dira, eta erdikoa da bitxiena. Atarte zabala zuen, egurrezko dintelak babestua. Eusteko, egurrezko zutikoa zuen erdian, eta bi alboetako kantalen ondoan, aldiz, zutoin bana. Lehenengo solairuan eta ganbaran, egurrezko egitura eta adreiluzko hormak ditu, tartean leihoren batekin. Teilatua bi isurkikoa da.

toponimia

Antzina euskaraz, gaztelaniaz bezala, ur hitza erabili izan zen “ibai” edo “erreka” esangurarekin eta handik sortu zen ugalde “ur alde”. Gure kasu honetan artikulua lagunduta ageri da. Nahiko arrunta da Ur>Ug aldaketa eta Berrizen bertan dugu, esaterako Ugarte (“Ur arte” edo “erreken artean”).